


Groseko Haurtxokoa eta Gaztelekua

Sozializazioa, hezkuntza eta hiritartasuna sustatzeko gune garrantzitsuak dira Haurtxokoak eta Gaztelekuak, eta, aste honetan, LH 4 eta LH 6ko ikasleok Groseko Haurtxokoan eta Gaztelekuan izan gara bertako zerbitzuak ezagutzeko aurkezpen-saioetan. Datorren astean LH 5 eta DBH 1eko ikasleen txanda izango da. Hilero, Atariaren bitartez eskura izango dugu gune hauetako [programazioa](#), eta geletan ere ikasleok eskura izango dugu, Ikastolatik kanpoko ordutegian guztiok animatu gaituzten! Hemen duzue bertan helarazi diguten [aurkezpen-gutuna](#).



2020an jaiotako senideen aurre-matrikulazioa

Aurrematrikulazio garaia hurbiltzen ari zaigu, eta, urtero moduan, datorren ikasturtean 2 urteko gela hasiko luketen senide edo seme-alabeen datuak biltzen ari gara [hemen](#). Milesker laguntzarengatik.



Denboraren makinak eraiki ditugu

LH1eko ikasleok burubelarri aritu gara lanean azken egunotan denboraren makinak eraikitzen. Makina hauei esker dinosauroen garaira bidaiatu ahal izango dugu datorren astean, prest gara abenturarako!



LH3koak Uliako ur biltegietan

Aste honetan, LH 3. mailako Zezengorri, Amalur eta Akerbeltz taldeek Uliako ur biltegiak bisitatu ditugu. Bertan Donostiako ur biltegi zaharrak nolakoak ziren ikusi dugu. Honela, urak gure bizitzan duen garrantziaz jabetu gara.



Zurriteka

Zurriola Ikastolako Ikasleen Euskara Batzordeak eta DBH 4 eta Batxilergo 1. mailako ikasleek garatu genuen proiektua ekarri nahi dugu gogora: [Zurriolako Euskarazko Mediateka](#). Bertan, gure gustuko diren erreferentziak bildu ditugu, eta klik batera jarri ditugu euskarazko film, dokumental, musika eta liburu ugari. Denon ohiturak euskarara eraman nahi ditugu proiektu honen bidez, gure euskaltzaleasuna eta ekintzailetasuna sendotzearekin batera.



OHARRAK / AGENDA:

- **HH3:** Toki-eder. Goizpasa. HH3A-B (Miren-Alaine), urriak 19. HH3C-D (Amaia-Nekane), urriak 20.
- **LH5:** Eureka Zientzia Museora irteera. Egunpasa. Urriak 18.
- **DBH1:** Okendoko Gaztelekura bisita gidatua. Urriak 20.
- **BATX1:** C1 diru-laguntzak. [Zirkularra](#).
- **Eskola kirola:** 1. jardunaldia: A eta B.
- **Donostiaeuskaraz:** Asteburuko jarduerak haurtzat. [Informazioa](#).
- **Parketarrak:** Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean. [Informazioa](#).

